

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2021eko uztailaren 14an ondorengo Dekretu hau eman duela:

“Begarako Udalak aldi baterako Udaltzaingoko agenteak kontratatzeko premia izanik eta Aurkauteko lan-poltsara jo arren ez zuenez behar besteko izangairik jaso, lan-poltsa osatzeko premia ikusi zuen eta udaltzain agenteen lan-poltsa osatzeko deialdia egitea eta hautaketa-prozesua arautzeko oinarriak onartzea erabaki zuen, alkateak 2021eko apirilaren 30ean emandako dekretu baten bidez.

Hautaketa-prozesuan aurreikusitako ariketen eta merituen balorazioa eginda, epaimahaiak lan-poltsa osatuko dutenen zerrenda-proposamena jarri du mahai gainean.

Hori ikusita, eta Antolakuntza Arloko bileran proposatutakoari jarraituz, **ERABAKI DUT:**

Lehena: Prozesu osoan ateratako puntuazioa kontuan izanda eta ateratako guztizko puntuazioaren hurrenkerarekin, aldi baterako premiei erantzungo dieten izendapenei begira, Udaltzaingoko agenteen lan-poltsa osatzea.

Bestalde, hautaketa-prozeduraren azken kalifikazioa izanik, oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako emaitzen batuketan berdinketa egongo balitz, oinarrietan jasotakoari jarraituz, lehentasun-irizpideak kontuan izatea:

1.-Euskal Funtzio Publikoari buruzko Eusko Legebiltzarreko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua ezarritakoaren arabera, eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarreko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua arabera, eta lanpostu horretan % 40 baino ordezkaritza gutxiago duen sexua emakumezkoa izanda, emakumeak du lehentasuna (% 20ko ordezkaritza du).

Eta, beraz, honako lan-poltsa hau onartzea:

NAN DNI	GUZTIRA (MERITOAK) TOTAL MÉRITOS	GUZTIRA (TEST+ ELKARRIZKETA) TOTAL TEST + ENTREVISTA	GUZTIRA TOTAL
44XXXX68	33,4	83,99	117,39
725XX752	29,35	81,21	110,56
72XXXX56	24,3	84,55	108,85
78XXXX07	31,8	73,94	105,74
44XXXX33	16,7	86,67	103,37
45XXXX44	26,65	76,31	102,96
72XXXX89	19,6	78,74	98,34
45XXXX31	15	79,85	94,85
78XXXX02	21,25	73,03	94,28
72XXXX42	4,55	88,79	93,34
72XXXX24	10	80,2	90,2
78XXXX87	16,65	73,28	89,93
44XXXX00	21,35	67,53	88,88
16XXXX84	15,9	71,97	87,87
44XXXX86	14,9	71,46	86,36
44XXXX23	10,6	75,4	86
72XXXX55	2	82,83	84,83
79XXXX39	15	68,99	83,99
72XXXX43	0	82,47	82,47
72XXXX48	5	77,22	82,22
72XXXX35	15,3	66,92	82,22
44XXXX02	0	81,92	81,92

15XXXX13	3,7	77,78	81,48
728XX752	10	70,25	80,25
72XXXX51	10,5	69,09	79,59
44XXXX82	5,5	73,28	78,78
79XXXX73	0,9	76,97	77,87
45XXXX64	0	77,78	77,78
44XXXX59	7,75	69,49	77,24
44XXXX81	0	76,26	76,26
72XXXX21	0	71,62	71,62
72XXX891	0,5	70,51	71,01
45XXXX33	3,95	66,67	70,62
45XXXX37	0	70,51	70,51
44XXXX08	0	70,35	70,35
72XXX691	2,25	66,97	69,22
72XXXX22	0	67,83	67,83
45XXXX71	0	63,94	63,94
45XXXX38	0	63,13	63,13

Bigarren: Lan-poltsa honen indarraldia erabaki hau hartzen denetik urtebetekoa izango da eta egun udalean indarrean dagoenaren osagarria izango da, aurreko lan-poltsak lehentasuna izanik eta deialdi honetakotik sortutakoarekin osatuz, hark indarrean jarraitzen duen bitartean.

Gogorarazten da lan-poltsaren funtzionamendua Udalak 2006ko apirilaren 4an alkatearen dekretu baten bidez onartuta dagoen Lan-poltsen Erabilerarako Barne Araudiak jasotzen duena izango dela (eranskin gisa dago jasota).

Hirugarrena: Lan-poltsaren osaketaren erabakia web-orrian eta udaleko iragarki taulan argitara ematea."

#### Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2021eko uztailaren 14a

IDAZKARIA

